

6. Hizkuntzalarien Zientzia Veleiako Iruñan

Josu Naberan Naberan



Gaitegiz-Arteagako Naberansakone baserrian jaio zen 1941ean. Idazle eta itzultzailei aritu da.

12 urterekin Derioko (Bizkaia) apaiztegira joan zen ikastera. 1966an apaiztu zen. Erregimen frankistaren aurkako jardueretan parte hartu ondoren, Zamorako espetxean espetxeratu zuten. Giltzapetuta eman zituen zazpi urteetan Historian lizentziatu zen eta hizkuntzak ikasteko aprobetxatu zuen. Urte asko eman zituen AEk koordinakundeko didaktika sailean, helduei euskara irakasten. Gero Kalegana itzulpengintzan aritu zen. Besteak beste, D. Hume, T. Hobbes (Leviathan) eta Herodoto euskaratu zituen.

1998an *Sugearen iraultza (Gaiak) (La vuelta de sugaar)* saiakera argitaratu zuen, historia zaharrenari eta mitoei buruz ikertuz. Naberanek uste du antzinako zibilizazioak ez zeudela harrapaketa eta gerran oinarrituta, eta ez zirela patriarkalak; eta hori dela etorkizunari begira planteatu beharreko eredia. Liburuaren beste ardatzetako bat neoliberalismoaren kritika eta euskal baserriaren balio tradizionalen defentsa da. Horrez gain *Antzinako Euskaldunen Egutegia*, euskeraren jatorriari buruzko *Hitzen koba* eta *Euskera dantzara: el ibérico según el euskera* agitaratu ditu.

Hizkuntzalarien Zientzia Veleiako Iruñan

Veleiako aztarnategi ezin garrantzizkoagoan, euskeraz idatzitako hitzak agertu dira hango ostraketan. Duela 1.850eko euskerazko grafitoak azaleratu zaizkigu, beste gauza anitzen artean. Izan ere Veleia Goiriko leku hura Ikastetxe bat izan zen (baita gure lehen ikastola ere) Inperio Erromatarraren galtzadako gune txit garrantzitsuan.

Horiek horrela, zer gertatu da euskaldunok gure kultura eta zibilizazioaren altxor handi hori ia alferrik galtzen uzteko? Batek idatzi zuenez, “Iruña-Veleiako afera”, *afera* aldrebesa. Interes politiko-ekonomiko ezagunak batetik, Opus eta Vaticanoren presioak bestetik, Arabako Diputazioak faltsutzat jo altxor hura guztia. Zentzu pixkat aski izan behar zukeen material anitz hura guztia ezin zezakeela faltsutu Jawhek berak ere.

Baina euskal sen ospetsuak huts egin zuen bete-betean. Hasierako errakuntzak faltsutasunaren olatu bihurtu ziren gure hedabide (masokei?) eurei esker. Euskal hizkuntza/kulturaren jagole izan beharko zutenek burua ezkutatu zuten hegopean; eta euskaldun kultu gehien-gehienek isil-isilik geratu ziren katastrofearen aurrean...

Kaos hura sortu zuen faktore erabakigarria EHU/UPVko katedradunen sententzia faltsua izan zen (hau bai faltsua!).

Euskarazko grafitoetan –A hondarkiarekin (desinentziarekin) ageri ziren hitz mordoxka bat zegoen: VILIIA, VILIIAN, NAIA NIVRII, NIIU LAKIINA, OSO V. POLITA, ARRAINA, VRA, LURRA, VELEIAN GORI BISI TA...

Bada, hemengo Unibertsitateko hizkuntzalari nagusiek aski izan zuten “-A artikulua” deritzoten aurreiritzia, hura guztia faltsutat jotzeko. Eta aski izan zen mezu erratu hori, hemengo zein hango hedabideez aldarrikatuta, eromen hura gauzatzeko euskal gizarte osoan.

Hara. J. Lakarra eta J. Gorrochateguiaren arabera, Veleiako garai hartan (K.o 1500~) sortu gabe omen zegoen “-A artikulua”. Beraz... Nire iritzirako, argudio inozoa bezain erratikoa. Badakigu hondoko beste zioak izan zirela bakailoa ebaki zutenak, baina hizkuntzalarion argudioa izan zen argudio izarra bulldogzerrari bide emateko. Horixe, aztarnategia bera suntsitu gura izateko. Gauza bera nahi zuen Vatikanok ere, erlijio katolikoari zegozkion irudiak ere ez zirelako “katolikoak”. Frabicio Visconti, Presidente della Pontificia Comisione de Arqueologiakoak “hura desagerraraztea” gomendatu omen zuen (eztiki?).

Alta, ofizioz hizkuntzalari ez izan arren hizkuntzazale garen batzuk arras iritzi desberdina dugu euskal –A desinentziari buruz: hortxe izan dela beti euskeraren erraetan: zehazki, **UHA** erro paleolitikoaren desinentzia dela.

Hori baieztara dator, gainera, “iberiera”, une hartan (-18.000~) sortu zen euskeraren ahizpa bikia. Eusk/iberierak partekatzen dituzten erro bisilabadunen artean, **M’b** hotsa ageri da (M’bar’...), **Uha** euskerazkoaren parekoa.

Hortik dator euskerazko **HURA** , eta iberierazko **AR’** (ara).

Bide batez, Veleiako grafitoetan ageri diren “marra exotikoak” iberierak darabiltzan *tilet* horiek besterik ez dira, Veleiatarrentzat ezagunak nonbait.

Azkenik, ergatiboaren sorrera daukagu V. edo VI. mendean. Aipatu hizkuntzalariak ergatiboaren bila saiatu dira grafitoetan, baina han ez da ageri ergatiborik. DENOS hitza ez da “denok”, dioten bezala, baizik horixe literalki, DENOS *din-os “duinki” bazkaldu zutela ezkontza hartan.

Eta ergatiboa ez zen sortu, dioten bezala, “kanpotik”, latinetik, baizik eusk/iberiera barrenetik.

Izan ere, **ARA** iberierazko desinentziaren deklinabidean, **AI/EI** ditugu *hura/haiek* adierazteko. Artikulu horri **KE** hizkia gehitzerakoan, **AIKE/EIKE** sortu zen, zeinek egokitzapen fonetiko xehe bat dela medio, **HARK/HAIEK** ergatiboari eman zion bide. Oharra: iberierazko -**KE**- hizkia euskerazko **ETA** lokailua da. Adibidez: “abar’**ke**’borste” = “hamar **eta** bost” (hamabost).

Beraz, batetik, ergatiboa ez da etorri kanpotik (“latinetik” edo “erromantze latinezkotik”. Eta bestetik, -A hondarkia beti izan dugu euskeraren barruan. Hortik normaltzat hartzekoa Veleiako grafitoetan **-A** desinentzia aurkitzea, Erromatarren denborako **Ibarra, Ilunna** eta horrelakoak bezala.

-A hondarkin hori hainbat hizki eta atzizkik ematen dute. Hona:

-A berezkoaren (itsasia edo organikoaren) aztarna uzten duten erroak edo atzizkiak:

-ARA, -AMA, -ABA, -BIA (Behobia), BOA/-BA/-MA/-NA,

AIA/-IA (Hendaia), -ABA/EBA/-BA,-ILIA/-ULIA/-ILA,- ITA (polita),

-ANA/-IANA/-INA;-IRA/-ERA/-RA, -IKA/-IGA/-AGA, -GARA/-GA/-KA,

ARA/-RA, -GANA/-NA, -TSA/-SSA/-SA (fem.), -ARIA; ITZA/-IZA/-ISA,

-OLA/-LEA/-LA, AZUA/-TZA/-TSA/-SA/-TA, -ARRA/RRA (arrapostu);

-ENE/-ENA, URRRA (aitzurra, urratu).